

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Hasierako onarpena ematea Amurrioko zarataren mapa estrategikoari

Amurrioko udalbatzak, 2016ko uztailearen 7ko ohiko bilkuran, erabaki zuen onartzea udalerriko Zarataren Mapa Estrategikoa eta adieraztea babes akustiko bereziaren eremuak direla hiri antolamendurako plan orokorrari atxikitako inpaktu akustikoari buruzko azterlanean proposatutako eremuak.

Espediente hori jendaurrean izango da udal bulegoetan (Ingurumen Arloan) hilabetez azken argitalpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta, hala behar izanez gero, egoki deritzeten erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabakia behin betiko onartu dela joko da. Udalaren web orrian ere argitaratuko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Amurrio, 2016ko abuztuaren 1a

Alkate-lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA